

Boto taktikoa, konpromiso estrategikorako

**Nekane
Zinkunegi
Barandiaran**

Abian da 2020. urtea. Bisurtea. Aurten egun bat gehiago, 366 egun izango ditugu geure bu-ruari ezarritako erronkak er-
diesteko. 2020a ere hauteskunde ur-
tea izango da euskal politikan. Martxoan, Ipar Euskal Herrian izango dira herriko etxeetako bozak. Eta ikas-
turte politikoaren amaieran edo hu-
rrengoaren hasieran, EAEn egokituko da Eusko Jaurlaritzako hurrengo le-
hendakaria hautatzea.

Krisi, kaos eta larrialdi etengabeko garaian, botoa ematea ez da izapide

soila. Demokrazia bera dago etengabe ezbaian, eta egia da hauteskunde egun batez ez dela dena erabakitzen, baina boto paper bat erabakigarria izan dai-teke. Baita erakundeetara eraman di-tugun ordezkarien jarrera ere. Hori egon da pil-pilean urte hasierako egu-notan: Espainiako Gobernuko hurren-go presidentea izendatzeko, aldeko, aurrakako edo abstentzioaren botoa ematea.

Gaur, hain justu, hamar urte bete di-ra EPPK Euskal Preso Politikoen Kolek-tiboak “borrokaldi berria” abiarazi

zuenetik. Presoek komunikazio astea jarri zuten martxan, itxialdiak eta go-se grebak iragarri zituzten, eskaera ar-giekin: baldintzapeko zigorra beteta-koak aske uztea, larriki gaixorik zeudenak kaleratzea, edota bakartuta-ko presoak kideekin elkartzeta.

Zoritzarrez, hamarkada bat igarota, indarrean diraute eskaera horiek eta oraindik hutsik ditugun 244 ohe. Pa-zientzia estrategikoz, ulertu beharko genuke une jakineko erabaki taktikoak eska dezakeela luzera begirako kon-promiso estrategikoa. •

Aitona

Joxean Agirre

Claudio Magrisek kontatzen du Heidegger bizi izan zen etxea bi-sitatzeraz joan zela behin Mess-
kircheraz eta, Kirchplatzen hiru-
garren zenbakiaren aurrean zegoela, emakume adineko bati galdetu ziola ea Martin Heidegger han bizi izan al zen eta «a, bai, Martin?, sakristauaren se-meaz?», erantzun ziola. Seguru nago Iza-bara joan eta adineko bati Pedro Migel Etxenikez galdetuko bagenio, «a!, bai, Felisaren semeaz?», edo «Pedroren se-meaz?», erantzungo lukeela, adinkideen-tzakoz gurasoak semea baino garrantzi-tsuagoak izaten baitira.

Jon Idigoras beti izan Zornotzan Jua-nitaren semea. Iheslari bezala Ipar Eus-kal Herrian zegoela nortasun agiri fal-tsuarekin Bilbora bidali zuten klandestinitatean LAB sindikatua anto-

latzera eta, Zazpizkaleetatik barrena be-re ustetan moztortuta eta lasai zihoa-la, amaren lagun batek ezagutu zuen eta «zu, Joxe Dominen eta Juanitaren semea zara!», esan zion; eta Jonek oso serio «*señora, yo soy Juan Lopez y soy de Miranda de Ebro*» esan bazion ere, «baina igual iguala da-eta», esanez joan omen zen andrea kaletik zehar.

Bizitzaren zati handi batean gurasoen seme-alabak gara. Ondoren eta kolpetik gure seme-alaben guraso bilakatzen ga-
ra eta, kondizio horretara ohitzen hasi-ta gaudenean eta gauzak ondo bidean, aitona edo amona bilakatzen gara, bizi-tza aitaren batean igarotzen baita, Na-bokovek esan zuen bezala, argi izpi bat baita bi iluntasunen artean.

Urte berriarekin batera aitona izate-ko zorian nago eta arraro egingo zait

titulu berri horretara ohitzea. Badakit urte gutxi barru, mutila futbolean edo pilotan jokatzen hasten denean partidaren bat ikustera joango naizela eta han egongo naizela bakar-bakarrik harmailetatik begira, aitona gehienak egoten diren bezala. Eta partida buka-tzean irakasleak edo entrenatzaileak, «zein duk hor harmailetan hiri begira zegoen agure hori?», galdetzen dione-an, nire bilobak (Telmo, Deun, Mikel edo Pello izan daiteke edo beste zer-bait, jaio eta aurpegia ikusi arte ez diotela izenik jarriko erabaki baitute), nire biloba horrek, diot, «bai, nire ai-
tona da, aitona Joxean», erantzungo duela, eta aurrerantzean bere adinki-deen artean ni Telmoren, Deunen, Mi-kelen edo Peruren aitona izango nai-zela. •